




Maddi Buztanargik ihes egin du!

Daisy Meadows

desclée



Sekretu bat gordetzerik bai?
Hala bada, entzun arretaz,
hitz egingo baitizut oihan magiko honetaz:
haritz zahar batean du sarrera,
segitu niri enborrean behera;
bertan biziko ditugu abentura
sekulakoak, eta han ezagutuko
oihaneko animalia magikoak!

Maitasunez,
Urretxu Katua



Edukiak

LEHENENGO ATALA: Urrezko bisitaria	9
BIGARREN ATALA: Adiskidetasunaren Oihana . .	21
HIRUGARREN ATALA: Grizelda!	33
LAUGARREN ATALA: Bikain Bidaia Agentzia . . .	47
BOSGARREN ATALA:	
Arazoak Altxorraren Zuhaitzean	57
SEIGARREN ATALA: Arraunbeitia familia	67
ZAZPIGARREN ATALA: Ur-jauzi Arraitsua	79
ZORTZIGARREN ATALA: Xikiñosen bainua	91



LEHENENGO ATALA

Urrezko bisitaria

June Basozain eta bere lagunik onena
Lili Oreinaga Juneren etxeko sukaldean
zeuden bazkaltzen bukatzen. June
aitarekin bizi zen.

—Zelako betekada! —esan zuen Lilik
sabelean zapladatxo bat emanez—.
Zure aitaren pizzak ikaragarri onak dira.
Junek irribarre egin zuen.





—Zorionekoa zu! Gure etxe aurrean bizi zarenez, prestatzen dituen guztietan etor zaitezke!

—Pozten naiz gustura bazkaldu duzuela jakiteaz —esan zuen Basozain jaunak sukaldean sartzean—. Zer asmo duzue arratsalderako?

—Animaliak ikustera joango gara, jakina! —esan zuen Junek.

Liliren gurasoak Animalia Zaurituei Laguntzeko Ospitaleaz arduratzen ziren, etxearen atzealdeko aletegian eraikia baitzuten. Bi neskek oso gustukoa zuten animaliak zaintzea.

—Gaur goizean azerikume zauritu bat iritsi da —erantsi zuen Lilik—. Hura aztertu beharko dugu lehenbizi.





Junek baiezkoa egin zuen buruaz, bere kizkur horiak astinduz.

—Ideia bikaina –esan zuen—. Hori da udako oporrek duten hoberena: denbora asko pasatzen ahal dugula animaliekin!

—Itxaron! –esan zuen Basozain jaunak—. Non uzten dira plater zikinak?

—Harraskan –erantzun zuten Lilik eta Junek batera.

Platerak harraskan uzten ari zirela, Junek urrakada leun bat entzun zuen.

—Entzun –esan zuen.

Xir, xir, xir...

—Harraska azpitik datorrela dirudi –esan zion Lilik.

Neskak kokoriko jarri, eta begiratu bat egin zuten. Lilik belarrien atzera



Maddi Buztanargik ihes egin du!



eraman zuen adats beltza armairuko atea irekitzean.

—Hara! —arnasari eutsi zion.

Barnean, sagutxo marroi maitagarri bat aurkitu zuen, belarriak hain arrosak eta zurbilak zituen, ezen neskek haietan zehar ikus zezaketen ia. Sagutxoak begi txiki distiratsuak kliskatu, eta pala baten atzean ezkutatu zen azkar.

—Zeinen moñoñoa!

—esan zuen Lilik.

Basozain jaunak barre egin zuen.

—Egia da, bai —esan zuen—, baina ezin da hemen geratu. Harrapatu behar dugu!

